



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/10/23 Udaletxean 18.00-19:30



Gaurkoan bildu gara,

- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Joseba Aranburu (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Carlos Gonzalez (Irabazi)
Adur Ezenarro (Bildu)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. - Ekaineko aktaren onarpena
2. - Granelean saltzen duten komertzioei hobaria hondakin tasan
3. - Oria eta Amundarain erreken garbiketa
4. - Hondakin mahaiko aurrekontua: hezitzaileak
5. - Gure kaleak, plazak, eskolako patioak..... zaborraz beteta: zer egin???
6. - Ordenantza

Aurreko aktaren onarpena

Ekaineko akta onartutzat eman da.

Granelean saltzeagatik hobariak

Granelean saltzeagatik hobaria hondakin tasan ezartzea eta gero honen jarraipena egitea begiratu behar dugu. Beste udalerrietako adibideak ikusi behar ditugu eta ondoren Ordiziara moldatu.

ORDIZIA ORAIN: Granelean saltzeagatik, gure proposamena tasan gutxienez %30eko hobaria jarri nahi dugu, konposta egiten dutenei bezala. Helburua; Plastikoen murrizpena bultzatu nahi dugu, plastiko bilgarri gutxiago erabiltzea, kutsatzen duenak ordaindu egiten du. Mahaiak hobaria handiagoa onartzen badu gure aldetik inongo arazorik ez.

PSE: Hemen lege bat egon beharko litzateke.

TEKNIKARIA: Denda batzuk dena granelean dute beste batzuk produktu batzuk, honen arabera tasak ezarri beharko dira.

ORDIZIA ORAIN: Tasak badaude, formulak badaude.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/10/23 Udaletxean 18.00-19:30



Denen artean begiratuko dugu tasak badauden eta korreo elektronikoz informazioa pasako dugu.

Edukiontzien gaia ez dago gai ordenean baina ordezkari batzuk ondorengo azalpenak eman dituzte:

EAJ: San Bartolomen ostegunean jarriko dira edukiontziak, nahiz eta gaia gai ordenean ez azaldu gaur konfirmatu didate.

EAJ: Filipinas kaleko edukiontziak ez dira mugituko, teknikoki ezin da.

HERRI PLATAFORMA: Hilerri pareko edukiontziak ere mugitu beharko dira, zebra bide ondoan dago eta arrisku puntu bat da.

Oria eta Amundarainen garbiketak

Garbiketarekin irailaren 11ean hasi ziren eta irailaren 27an amaitu zuten. Goizeko 8:00etatik arratsaldeko 16:00etara egoten ziren eta ondoren, ateratako hondakinak garbigunera ematen zituzten eta bereizita bertan uzten zituzten.

8.000 kg hondakin atera da, denetatik atera da: neumatikoak, erosketa orgak, kuboak, plastikoak..... Egunero argazkiak bidaltzen zizkiguten eta egunero sare sozialetara igotzen genitun.

Garbiketa enpresak, Txukun lorazaintza, aste beteko lana aurreikusi zuen eta hori fakturatu dute nahiz eta 3 asteko lana izan.

PLATAFORMA: Beasainen zuhaitzak botatzen ari dira, Ordizian zerbait egin behar da??

TEKNIKARIA: Beasainek URArekin hitzarmena dauka eta egin beharreko lanak bertan zehaztuta daude.

ORDIZIA ORAIN: Ibaia bazterrak zuhaitzekin egon behar dira.

LANDARLAN: Gu oso kritikoak gara Beasainen egiten ari diren lanarekin. Gaia oso interesgarria da baina ez da mahai honetako gaia.

Beasainen zer egin den galdetuko da eta jakin zergatik egin duten.

Hurrengo urterako, Goierriko udalerriekin harremana bultzatuko da garbiketa hau amankomunean egiteko.

EAJ: Lazkaon ere erreka garbitzeko enpresa berdina kontratatzen da, denen arteko koordinazio bat behar dugu.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/10/23 Udaletxean 18.00-19:30



LANDARLAN: Goiekira ere zuzendu beharra dago.

Hurrengo urteko irailean garbiketa berriro antolatuko da eta ahal bada beste udalerriekin koordinatuta egingo dela esaten da.

LANDARLAN: Garbiketa egiteko dirulaguntza zenbatekoa lortu da?

EAJ: GFako Agenda 21eko dirulaguntzara aurkeztu genuen baina Oria ibaiaren garbiketa zehazten zen aurrekontua auzkeztu genuen, ondoren hondakin mahai honetan Landarlanek Oria eta Amundarainen garbiketa egitea proposatu zuen baina dirulaguntzara ezin izan genuen dena aurkeztu. Dirulaguntza %50 batekoa izan da.

LANDARLAN: Aldundiaren bidez hondartzaren garbiketa egiten bada, ibai eta erreken garbiketa ere beraiek egin beharko lukete.

LANDARLAN: Garbiketaren datuak komunikatu dira??

EAJ: Bai, komunikabideetan eta sare sozialetan komunikatu da.

PSE: Kanpaina bakoitzarekin dossier bat egin beharko litzateke hurrengo urteetarako.

TEKNIKARIA: Komunikazioko arduradunari eskatuko diot.

LANDARLAN: Herritar batek erreka garbiketa egitea proposatu zuen, Zer bait egin da??

EAJ: Profesionalki lehenengo erreka garbiketa egingo dela esan nion eta gero udaberri aldera, erreka garbituko dugula sentsibilizazio kanpaina bezala.

TEKNIKARIA: Ekologista talde batek lagunduta orain dela hiru urte antolatu genuen.

Aurrekontua

EAJ: Kanean hezitzaileak jarriko dira baina ikasketak dituzten langileak izango dira, heziketan formazioa duten langileak.

ORDIZIA ORAIN: Gure helburua, Udaletxean parte hartzen duten talde eta batzorde guztiak diru-hornidura bat edukitzea da.

PSE: Gure kontseiluan adibidez, gaiak lantzen ditugu eta ondoren aurrekontuetara ematen ditugu. Nik uste, batzorde eta mahai guztiak ez direla berdinak, ez dutela berdin funtzionatzen.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/10/23 Udaletxean 18.00-19:30



ORDIZIA ORAIN: Diru-hornidura jarri nahi dugu partaidetza gehitzeko helburuarekin.

PSE: Hau hondakin mahaiak ere egiten du, ekimenak antolatu eta ondoren aurrekontuetan sartzeko eskaera egiten du.

ORDIZIA ORAIN: Hondakin mahaiak 20.000 €tako diru bat dauka eta teknikariak zein lan egin behar duen ere zehaztuta daukagu.

EAJ: Sentsibilizazio kanpainak oso ondo daude baina zigorrak jarri beharra daude.

LANDARLAN: Zigortzea oso ondo dago baina kanpainak egitea ere beharrezkoa da.

PSE: Sentsibilizazio kanpaina asko egin dira baina udal ordenantza bat behar da. Honela, gaizki egiten duenari zigorra jartzeko moduan egongo gara.

TEKNIKARIA: Sasieta Mankomunitateak 5 hizkuntza ezberdinetan hondakinen gaikako sailkaketaren inguruko euskarriak atera dituzte.

LANDARLAN: Hezitzaileak kontratatu behar badira, beraiek aurrera emango duten kanpainak helburu bat izan behar du. Organikoan inpropioen arazoa dagoela esaten ari dira.

ORDIZIA ORAIN: GHK-k inpropioen ehunekoa jeitsi egin behar du %8tik %4ra. Gaizki dagoen organikoa errefusara botako da.

LANDARLAN: Sasieta inpropioen inguruko informazioa eman beharko luke eta baita ere zigor kopururena.

Sasieta Mankomunitateari inpropioen inguruko datua eskatuko zaio eta galdetuko zaio zein izango den inpropioen proportzioa. Ordizian dugun datuaren arabera baloratu egin beharko da organikoaren bilketaren inguruko kanpainarik egin beharko al den.

ORDIZIA ORAIN: Hondakin mahaiaren helburua % 85era iristea izan zen baina ez dugu lortu.

PSE: Udalerrri asko daude % 40 batekin. Hurrengo urterako helburu bat jarri beharko genuke eta honetara iristeko kanpaina bat diseinatu.

ORDIZIA ORAIN: Hezitzaileak teknikari lana egin beharko lukete, kalean egon, komertzioetara joan,.... Errenterian lan hau egiten ari dira eta oso ondo dijoa kanpaina.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/10/23 Udaletxean 18.00-19:30



Kaleak zikinak kanpaina

Kaleak zikinak daudela salatzen bideo ezberdinak egin dira Tolosan eta beste udalerrietan ere bideo ezberdinak egin dira.

LANDARLAN: Bideoak oso ondo daude baina elkarteak antolatzen dituzten ekimenetan kaleak eta guneak garbiak utzi behar dituztela gogorarazi behar zaie.

EAJ: Hondakin mahaitik lona batzuk atera ziren ekimenetan jartzeko, Ordizia txukun mantendu behar dela esanez. Ekimenaren prentsaurrekoan ere esan daiteke Ordizia txukun mantendu behar dela.

LANDARLAN: Puntu konkretu batzuk daude zikinak daudela eta hezitzaileekin egin behar den kanpainaren barruan sartu behar da gai hau ere.

TEKNIKARIA: Hezitzaileak eta kaleak zikinak batera kanpaina egin.

PSE: Inpropioen datua ere ikusi beharko litzateke, kanpainari begira.

Ordenantza

TEKNIKARIA: Ordenantza moldatuta bidali dizuet baina 4. titulua ez dut ezer moldatu, konpostaren inguruko titulua, Eusko Jaurlaritzak auzokonpostaren legea lantzen ari delako eta momentu honetan kexa eta alegazio asko jaso dituelako.

Lege hori aurrera ateratzen bada auzokonpostaguneak agian ixtera emango gaitu. Legean ezarritako hainbat betekizun ez ditugu betetzen; konpostaren analitikak egin beharra, Temperatura neurketak (3 astetan 55 gradutan egon behar du konpostak eta auzokonpostan hau ez da betetzen),..... guzti honek diru kostu handi bat dauka.

Kostu guzti hauei aurre egiteko agian Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak jarriko dituela esan zuten.

ORDIZIA ORAIN: Konpostagailu hauen jarraipena egiteko teknikari bat izendatu behar da eta berak bere gain lan batzuk izango ditu. Konpost hau ere ezin da erabili elikadura katean, ikastetxeetan egiten den konposta ere ezin da banatu.

TEKNIKOA: Lege hau konpostaren aurkakoa dela esan dute, ondorioz alegazio asko jaso ditu.

PSE: Legeak esaten duena ez badugu betetzen, Udalak hau mantentzea agian ez dago ondo.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/10/23 Udaletxean 18.00-19:30



TEKNIKARIA: Gure ordenantzan lege honetan zehazten dena jaso behar dugu eta ondorioz, lege hau onartu arte Ordiziako ordenantzako 4. atala ezin dugu landu.

ORDIZIA ORAIN: Lege honekin planteamendu txar bat egiten ari dira.

TEKNIKARIA: Ordenantzako azken atala mahai honetan ez da landu, isunen gaia landu beharra dago.

ORDIZIA ORAIN: Isunen gaia Udal guztietan ezberdina da.

TEKNIKARIA: Beste udalerrietako isunen atala pasako dut eta denen artean adostuko dugu.

LANDARLAN: Isun ekonomikoekin batera herrian lanak egitea ere jarri daiteke.

EAJ: Baina hau ere kontrolatu egin behar da, lana egiten den ala ez.

TEKNIKOA: Ordenantza begiratu eta gero guk Udaleko TAGetara pasako dugu eta ondoren plenora.

ORDIZIA ORAIN: Guk ez dakit, gai hau eztabaidatu dugu eta ez gaude une honetan horrelako arategi eta agiririk onartzeko. Jende gehiegi daukagu estutzen, beste proiektu batzuetarantz bultzatzen gaituena.

LANDARLAN: Hondakin mahaiko kide bezala 2018 bukatzerako ordenantza bat behar dugu.

EAJ: Bizitzan arau ezberdinak ditugu. Hondakinekin ere berdina, arauak jarri eta ez badira betetzen isunak jarri behar dira. Honetarako ordenantza bat behar dugu.

LANDARLAN: Hau ezin da planteatu ordenantza bukatzen ari garenean, lan guztia egin eta gero.

Hurrengo bilera

Abenduaren 4an, asteartea, 18:00etan.